

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
304 positibo berri	2.064 hildako EAEn	578 positibo berri	656 hildako
15.514 positibo guztira*	59 UCIn EAEn	25.981 positibo guztira	38 UCIn Nafarroan

*HERNANIN 468 (+7), ASTIGARRAGAN 123 (+4)

Bihartik Nafarroan sartzeko eta irteteko aukerak mugatzea erabaki du Gobernuak

Murrizketa berriak 14 egunez aplikatuko dira, azaroaren 4ra arte, tartean tabernak eta kafetegiak eta jatetxeak ixtea barne, etxez etxe janaria zerbitzatzeko eta ogia eta prentsa saltzeko izan ezik.

URUMEA COVID-19

Nafarroako Gobernuak beste neurri-sorta bat onartu zuen atzo, koronabirusaren bigarren hedatze-olatu geldiarazteko xedez. Neurriok bihar jarriko dira indarrean, ostegunarekin, eta azaroaren 4ra arte iraunen dute. Osasun Kontseilariaren Foru Agindu baten bidez berretsiko dira, eta argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Honakoak dira astelehenean iragarritako neurriak garrantzitsuenak: Foru Erkidegora sartzeko eta bertatik irteteko aukera mugatzea, lan-arrazoiengatik, unibertsitate-ikasketengatik, senideak zaintzeagatik eta ezinbesteko beste arrazoiengatik izan ezik; tabernak, kafetegiak eta jatetxeak ixtea, salbu eta ogia eta prentsa saltzeko, hala egoteko baimena dutenen kasuan, eta etxez etxe janaria banatzeko, 21:00etara arte betiere. Hotelei eta landetxei baimena emanen zaie bertan ostatu hartzen ari diren

bezeroak artatzeko, mahai bakoitzean gehienez lau pertsona bildurik.

Bizikidetzaren burbuilak sortzeko beharra azpimarratu da

Murrizketek merkataritza eta kultur eta kirol-ekitaldi guztiei ere eraginen diete, egunero atek itxi eta bertan dauden pertsonak kanpora atera behar baitituzte 21:00etarako. Saltoki haundietako galeriak eta aisialdi-guneak, debekatu egiten dira aisialdirako, eta beraz, erosketak egiteko bakarrik baimenduko dira.

Foru Gobernuak mantendu egingen du gune publikoetan sei pertsona baino gehiago elkartzeko debekua, eta etxebizitza bakoitzean bizi direnek 'bizikidetzaren burbuilak' sortzeko beharra ezartzen du. Bakarrik bizi direnen eta mendekotasuna dutenen kasuan, zaintzaileak ere egon ahal izanen dira harreman-talde egonkor horretan (haunditako burbuila), eta ahalik eta gehien murriztuko da burbuila horietatik kanpoko



María Chivite asteleheneko prentsurrekoan.

pertsonetik hartu-emanak.

Frogatuta dagoenez, jarduera sozialetan eta barne-guneetan ematen dela kutsatze gehien, hortaz beste hogeitau neurri ezarriko dira, sektorez sektore, onarturiko neurri-sorta hori osatzeko.

Nafarroa, Astigarraga eta Hernanin alerta gorrian

Azkeneko hamalau egunetan 5.939 kasu positibo atzeman dituzte Nafarroan, horietatik laurdenak (1.682) Iruñean bertan. 100.000 biztanleko, 899

kasu dira Nafarroan; Iruñean, tasa hori zerbait txikiagoa da, baina larria halere: 834 positibo 100.000 biztanleko.

Tasa hori 500etik gorakoa izatea larritzat hartua dago, egoera kontrolpetik joaten ari den seinale, eta Espainiako Gobernuak zehaztua dauka adierazle hori dela herri edo eskualde jakinak hesitzeko parametroetako bat.

Hernani atzo sartu zen muga horretan lehenengo aldiz, 519ko inzidentziarekin eta Astigarragak 712koa du. **K**

Hernanik Ohorezko Mailan aritzeko partidua jokatu du Les Abellesen aurka Zaragozan

Igande eguerdian hasiko da partidua hernaniarren eta valentziarren artean. Irabazleak bi aste barru egingo du debuta Getxoren aurka.

HERNANI ERRUGBIA

Hernani Club Rugby Elkarteak Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketa jokatzeko erabaki zuen

astelehen ilunabarrean. Klubean, jokariaren eta orohar elkarte guztia inguratzen duen alderdian pentsatuta hartutako erabakia izan da.

Ohorezko Mailara itzultzeko partidua igande honetan jokatu du Zaragozan, Les Abelles talde valentziarraren aurka, eguerdian. Aurreko denboraldiko Ohorezko B Mailako B taldeko irabazleak dira eta lehia polita espero da iganderako. Saria haundia da, eta irabaziz gero bi aste barru berriro ere maila go-

renera itzuliko litzake Hernani. Jaenek uko egin dio partidua jokatzeari eta horregatik dira, orain Les Abellesekoak aukera hori baliotuko dutenak Hernanirekin batera.

Ohorezko Mailako lehenengo partidua urriaren 31n edo azaroaren 1ean jokatu luke, Getxon, euskal derbian. **K**

'The big sick', gaur Migrazinean

HERNANI MIGRAZINEA

Gaur, 18:30etan Biterin, *The big sick/la gran enfermedad del amor*, pelikula eskainiko da Migrazinearen barruan. Ondorengo eztabaidan, harreman mistoetan sortzen diren erroken eta aukerei, bikote transkulturelei, senideen eta lagunaren aurreiritziei eta oztipo horiek gainditzeko moduari buruz hitz egingo dute.

Urriaren 30era arte argazkiak aurkeztu daitezke

ASTIGARRAGA UDAL EGUTEGIA

2021eko udal egutegia osatuko duten argazkiak hautatzeko lehiaketa antolatu du Astigarragako Udalak, eta «ura» izango da gaia. Oraindik parte hartzeko aukera dago, hilaren 30era arte, Erribera kulturagunean, edo astigarraga.kultura@gmail.com helbidera bidaliz. Jasotzen diren argazkietatik 13 aukeratu dituzte eta lehena azalean agertuko da. Epaimahaikideek hartutako erabakia eta sari banaketa, azaroaren 6an adieraziko dute.

DBH-ri buruzko batzarra, gaur

ASTIGARRAGA HEZKUNTZA

DBHri buruzko asanblada egingo dute gaur astigarrarrek, 19:00etan Herri Eskolako areto nagusian. Gaia nola dagoen aztertuko dute.

Afari solidarioa Chillida Lekun

HERNANI CHILLIDA LEKUA

Gaur I. Sport Mundi Ongintzako Afaria egingo da Chillida Lekun. Afari horretan Vicente Ferrer Fundaziorako eta bere Indiako COVID-19 larrialdiaren ondorioak arintzeko kanpainarako dirua bilduko da.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora
24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
* Beilatokiak
* Errusketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

Amaita arrandegia

Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA OKINDEGIA

EGURALDIA GAUR Egunaren hasieran eguraldiak ildo beretik jarraituko du eta hego-haize indartsua ibiliko da. Goiza aurrera joan ahala, ordea, haizeak ahultzera egingo du eta ostarre zabalak agertuko dira.
Min.18° / Max.25°

BIHAR Ildo beretik joango da eguna. Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira eta, oro har, erdi mailako laino eta goi-lainoak izango dira nagusi. Arratsaldetik aurrera lainoak ugariagoak izango dira.
Min.15° / Max.23°

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraigoko Udala

Auzo Udala

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL LEHIAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Ikasturte berrian KoopFabrika «inoiz baino beharrezkoagoa»

Ekintzailtza sozial kooperatiboaren premia areagotu egin dela uste dute antolatzaileek.

URUMEA KOOPFABRIKA

KoopFabrikak bosgarren ikasturtea beteko du aurten «inoiz baino beharrezkoagoa den garaian», pandemiaren eraginez «gizartearen ahulguneak mahai gainean jarri direnean». Usurbilgo Sutegi aretoa aurkeztu zituzten atzo aurrera begirako erronka eta xehetasunak, Lanki ikertegiko Arianne Kareagak, Olatukoop sareko Leire Udabek, GEZKI institutuko Jon Morandearak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Iker Estensorok.

Urtez urte, KoopFabrikara iristen diren proiektuen konplexutasun eta aniztasuna haunditzen ari dela uste dute. Horren adibide gisa iaz bidelaguntza jaso zuten bi proiektu aurkeztu dituzte ekitaldian. Batetik Eihera, eraldaketa feminista eta LGTBI prozesuak diseinatu, garatu eta ahalbidetzen dituen kooperatiba; eta bestetik Herrerako Sukaldea, auzoan dituzten jateko-beharrak kolektibizatzen dituen proiektua.

KoopFabrika martxan jarri zutenetik, 244 pertsonak hartu dute parte eskainitako formazioetan. Horrez gain 55 proiektu sozioekonomiko garatu dira «for-



Sutegiko kanpoaldean bilduta KoopFabrikako partaide eta kudeatzaileak.

mazio eta bidelaguntza metodologia propioaren bidez». Iazko datuak ere aurkeztu zituzten, 2019-2020 ikasturtean 49 lagunek eman zuten izena programa osoan eta 25 proiektu garatu ziren. Aurtengo edizioan proiektu horietako batzuk kontsolidatzeko bidelaguntza ere jasoko dutela adierazi dute antolatzaileek.

KoopFabrika sortzera eraman zituzten arazoak, inoiz baino indar eta zentzu haundia dutela sinetsita daude. Horregatik aurtengo ikasturtean, orain arte egindako ibilbidean garatutako metodologia eta bidelaguntza sistema osoa ondo jaso eta denon eskura jarri nahi dute antolatzaileek, «tokiko sistemak lantzeko eta dimentsio publiko komunitarioak uztartzeko».

Udalagintza eraldatzailearen erronka eta jardunaldia Arantzazun, urriaren 30ean «Elkarlan publiko-kooperatibo-komunitario formak baliatuz,

udalgintza eraldatzailearen bidez, herri eta komunitateak indartzea dugu helburu» adierazi zuen Beñat Irasuegik. Hain justu udalgintza eraldatzailearen gaia lantzeko jardunaldia antolatu dute urriaren 30erako Arantzazun. Iaz ekin zioten udalgintza eraldatzailearen gaia ikertzeari eta aurten zabaltzeko ahalegina egingo dutela adierazi dute, Euskal Herrian udalgintza eraldatzaileko eredu propio bat garatzeko. Parte hartzeko ezinbestean koopfabrika.eus orrialdean izena eman behar da.

Bi formazio egingo dira azaroan eta otsailean Eskoriatzan eta Hernanin

Ikasturte honetan ere, bi formazio antolatu dituzte. Lehenengo aukera, Eskoriatzan eskainiko dutena, azaroaren 23an hasi eta abenduaren 17an amaituko da. Bigarren aukera berriz, Hernanin otsailaren 2an hasi eta martxoaren 25ean amaituko da. **K**

Emakumeen etxea definitzeko 2garren saioa bihar

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA Astigarraigako Udalaren Berdintasun sailak, «Astigarraigako emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko baldintza egokiak ezarri eta sustatzea» du helburu. Hori horrela, hainbat saio antolatu dira, «Emakumeen etxea herriko emakumeekin batera ko-diseinatzeko» prozesu bat garatu nahi dutelako. Urriaren 8an egin zen lehenengo saioa, eta urriaren 22an, ostegunean, egingo da bigarrena. Gaineratu dute, egungo osasun-egoera dela eta, aforoa 30 emakumetara mugatuko dela. Horrez gain, zaintza zerbitzua eskainiko da.



Lehenengo bilera urriaren 8an egin zen.

Mintzalaguna Doberan izateko atea zabalik

Talde batzuk elkartzen hasi dira eta euskeraz hitz egin nahi duenak aukera badu talde desberdinetan.

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Mintzalagun egitasmoa martxan da eta ikasturte berriaren hasiera aukera ezin hobea izan daiteke egitasmo honetan parte hartu nahi duenak izena emateko. Horretarako aukera urte osoan dago. Jada, Mintzalagun talde batzuk elkartzen hasiak dira. Gaur egun 60 bat lagun daude izena emanda, 10 taldeetan banatuta.

Mintzalaguna euskeraz hitz egin ohi duten pertsonak euskeraz egin nahi duten pertsonekin euskeraz aritzeko elkartzen dituen programa da. Funtzionamenduari dagokionez, parte hartzaileen artean talde txikiak egiten dira eta astean behin ordu betez beraie aisialdi garaian elkartuko dira paseoan, kafetegian, parkean... euskeraz aritzeko, euskeraz bizitzeko.

Bi modutara parte hartu daiteke, euskera praktikatzeko eta euskera praktikatzeko lagunduz. Parte hartzeko bi baldintza bete behar dira:

Euskeraz komunikatzeko gutxienezko maila izan behar da. Astean ordubetez elkartzeko prest egotea.

Sahara espoliatzen duten enpresa transnazionalen inguruan hitzaldia

HERNANI SAHARA

Fátima Elgalia Bidalla-k, aktibista saharauiak, Europako enpresek Saharar lurraldearenganako espolioaren berri emango du, bihar, 19:00etan, Biterin. Egoera horren aurrean komunitate saharauiak duen borroka antolaketa nolakoan den kontatuko du. Zehazki, emakumeek, subjektu politiko gisa, Saharar herriaren giza eskubideen alde zein paper jokatzeko duten azalduko du. Bestetik, Andoni Lubakiren *Expolio y ocupación* dokumentala ikusteko aukera izango da.

Gripearen aurkako txertoa gaur

EREÑOTZU OSASUNA

Gripearen aurkako txertoa emango da gaur, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko Auzo Udaleko areto nagusian.

IRAGARKI MERKEAK

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Garbantzuak txorizoarekin - "Ajoarriero" a - ljiito besoa. BIHAR: Pistoia rebueltoan - Oilasko (label) errea patata frijitu eta letxugarekin - Sagar tarta. **10,5 €.**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**